

Manex Erdozaintzi Etxarten idazlanak

«garai bateko gizartearen ispilu»

► 1934an Ibarlan sortu eta 1984an Okzitaniako Tolosa herrian zendu zen olerkari frantziskotarra

Ainize BUTRON

IZURA

Manex Erdozaintzi Etxart, frantziskotarra izateaz gain, olerkaria ere bazen, eta olerki horietariko zenbait 1978an argitaraturiko "Hinki hanka", 1985eko "Herri honen errailetan", eta 1999ko "Bizitza pilpirak-Nafarroari poema irekia" argitalpenetan bilduak dira.

Agurtzane Ortizek, hamar urtez, haren obra eta bereziki biografia bildu ditu berrikitan kaleratu duen tesian. Bere hitzetan, Erdozaintzi Etxartek idazlan asko argitaratu gabe utzi zituen.

«Guztiak zenbatu ditut tesia egiterakoan. Donapaleuko frantziskotarren etxean zuen liburutegian material asko zegoen; hau da, eskutitzak, egunerokoa, agendak eta beste. Benetako altxorra dago bertan», nabarmendu zuen. Ortizen ustez, idazlan horiek guztiek «garai bateko Euskal Herri osoko historia» aztertu eta ezagutzeko parada ematen dute.

«Besteak beste, garai bateko mugimendu kultural eta politikoa esplikatzen ditu testu horietan. Ikerketa lana egiterakoan, pertsona eta herri baten berri izan dut», berretsi zuen.

Berritzailea

Manex Erdozaintzi Etxart ez zen literaturan baitezpada berritzailea izan. 70eko hamarkadan sorturiko idazle taldeko kidea izan zen. Garai horretan, Agurtzane Ortizek argitu bezala, idazteko forma berriak, gai berriak, baina baita tradizioari lotutako gaiak ere azaltzen hasi ziren literaturan. «Gai berri horiek Manex Erdozaintzi Etxarten obran daude. Bere garaiko gizartearen ispilua izan zen. Olerkiak arma bezala baliatzen zituen ideia abertzaleak garatzeko. Testuetan ageri den bezala, ideietan oso abertzalea zen, eta iraultzailea. Manexek berak esaten zuen bere obra oso xumea zela. Autorea baino gehiago, apeza edo irakaslea zen», argitu zuen.

Agurtzane Ortizen eta Xabier Lasaren ustez, Erdozaintzi Etxarten pentsamendua eta tesien berezitasuna benetan nabarmentzekoa da. Manex Erdozaintzi Etxart olerkaria izateaz gain, ezkerreko kristauen artean sortu zen eta "Fededunak" taldeko kide ere bazen. Belau-naldi horretako beste askok bezala, kristautasunerako eta Euskal Herrirako zaletasuna el-

Manex Erdozaintzi Etxart 1934an Oztibarreko Ibarlan sortu zen, eta 1984an zendu zen, 50 urte zituela. Erdozaintzi Etxarten heriotzaren XX. urteurrena da aurten. Duela hamar urte egin bezala, oroitzapenean atxikitzeko, Manex gogo-

an elkarrekin haren obra, bizitza eta pentsamendua goraiatzeko bi hitzaldi antolatu ditu; joan den larunbatean izan zen bat eta ondoko ostegunean egingo dute bestea. Agurtzane Ortiz eta Xabier Lasa izango dira hizlariak.



Robert THURIN

Agurtzane Ortizek Manex Erdozaintzi Etxarten obra goraiatu zuen joan den larunbatean, Izuran.

karrekin ulertzen zituen.

Xabier Lasak Manexen pentsamendu aitzindaria goraiatu zuen: «Manex laborantza giro hagitz lehenengoan sortu zen, hark adierazi zuen bezala, eta teknikaren munduan urri garatua zen, gauza bera erraten ahal dugu fedea ikusteko eta bizitzeko moldez. Baina, bizitzak behartua, Euskal Herritik alde egin zuen, Parisera, Okzitaniako Tolosara... Eta hiri handiko bizimoduak beste ikuspegi bat eman zion».

Munduari irekia

Lantegien esplotazioak, diruak sortutako klase ezberdintasunak, hiri handien indibidualismoa eta laborantza munduarekiko mespretxua ezagutu zituen, baina baita mugimendu politiko berrien sorrera, sindikatuak, sozialismoa eta erlijioa ulertzeko molde irekiagoak ere. Berrikuntza horiei esker, Manexen pentsamendua modernitatearen jauzia eman zuen.

«Baina, halaber, ez zuen mundu zaharra mespretxatu, bere lurrari, herriari, jatorrizko izaera kolektiboari atxikia baitzegoen erruz», adierazi zuen Lasak. Manexek berak esaten zuen: «Euskadi eta mundua, bata besteari lotuak bizitzen saia-

tzen nauk; halaber, natura eta gizona elkarrekin ezin bereiziak dituk». Manex, munduari irekia, etengabeko hazkunde dinamiko eta tinkatuan barnertua zegoen. «Euskal Herrian sinesten dudalako gainerako herri zapalduen errealtateak

nireak dira», hitzak goraiatu zituen Xabier Lasak Manexen pentsamendua aipatzerakoan.

Bizi izan zen garaian hainbat ideologia zabaldu ziren; horien artean, marxismoa. Ideologia horrekin zuen loturari begira, Lasak marxismoa ez zuela etsai

hartu argitu zuen; «kapitalismoa, ordea, bai». «Kapitalismoaren kontrako sutsua zen, mundu materialista eta zentzugabe batera eramaten gaituelako. Axolagabetasun horren kontra engeiamendu etikoa proposatzen digu behin eta berriz».

Xabier LASA

Erdozaintzi Etxarten pentsamenduaz eta bizitzaz egin tesia egilea

Esperantza kantatzen ez naiz asperturik! (*)

Hogeitaz harlauza aski pertsua da poeta bat hortzeko, nola hogeitaz mende herri bat. Ez ordea poetak edo herriak primadera bihotzean badaramate.

Manex, gauza ttipien poeta handia, herri ukatuaren kantaria, ez da dagoeneko lur zoru hilda. Alta bada, erranen nuke, haren oihi isila, haren mistikaren lurrina, orain hasten dela Euskal Herritik barreiatzen, lirikarako baino harriarako eginak diruditen sasoi garratz hauetan.

Amets bat ote? Ala egia da herri harroko hau leku bat prestatzen ari zaiola Oztibarreko olerkari apalari? Nahi nuke horrela izatea, dolorezko iza-

rrak lagun ditugun honetan. Beharbada errespetuz, hostoak lehertzen dituen larrazken gordinetik, poesia sortzen ari da Herri honen errailetan, eta sekula galdu ez duen ttipitasun sendotik maitasunaren esperantza burutzen ari da gure bizitza pilporetan.

Literaturak opari paregabea egin zion Euskal Herriari Manex Erdozaintziarengan. Isil-isilik joan zen, bere herritik kanpoan zelarik; baina isil-isilik, nola heriotzan bizitzan ere, bere elea ari da argira esnatzen, eta bere olerkia ikerketagai bilakatzen ari da.

Hogeitaz geroago euskaldunok aukera berri bat dugu

Manexen iturritik edateko eta, esperantzari atxikiak, bizitzari aurre egiteko.

Euskal Herri guziko anaiak Bizia maite baldin baduzue...

Denak elkarri estekan Ager gaiten kantuz, dantzan Giza-semeen artean Gogoa su pindarretan Irria ezpain xokoan Primadera bihotzean!

(*) Artikuluan letra etzanez idatzita dauden hitzak Manex Erdozaintzi Etxarten olerki liburuaren izenburuetatik hartuta daude.

PENTSAMENDUA PRAKTIKAN JARTZEN

Xabier Lasak azaldu zuenez, Manex Erdozaintzi Etxarten pentsamendua ez ziren buruan gelditzen, praktikan jartzen zituen. Euskaletza inguruan dabilen apaiz askok egiten ez duten bezala, kutsu politikoa zuten herri ekintzetan parte hartu zuen. «Herriz herri» astekariko sortzaileetako bat eta zuzendaria ere izan zen, eta Gure Irratiko sorrera hurbiletik ezagutu zuen. Azkenaldian, Amnesty Internationalen ibili zen lanean. •